



## Andre Maria eliza (Gernika - Lumo)

Gernikako Batzar Etxetik metro gutxira, Foru Hiribilduko hiri-aldearen eta Lumoko elizatearen jurisdikzioaren arteko muga izan zen oso aldapa maldatsuan, Andre Maria eliza dago.

Tenplua eraikitzen XV. mendearen erdialdean hasi zen, indarreko eredu gotikoari jarraiki. Hala ere, mende bat geroago *hallenkirche* sistamarantz birziklatu zen. Estiloak nahastea -portadan gotikoa, barrualdean errenazentista- eliza honen ezaugarririk berezientakoa da.

Obrak beste mende bat behar izan zuen bukatzeko, 1660 inguruan bukatu baitzen. Urte horretakoak dira errespetuzko estilo errenazentistako korua eta azken gangen iraulketa. Lan hori Antonio Ortiz Colina hargin menditarrarena da.

### Eraikina

Kanpotik, Gernikako Andre Maria bolumen trinko itzel eta adiezin bezala ikusten da, harri landuko eta hargin-laneko puska itzel gisa.

Beraren teilatu zabalak gunehandi-handia ezkutatzen du, bost tartetako hiru nabetan antolatua. Nabeek abside poligonalek errematatuta daude.

Absideak eta nabeak goiera berean daude eta gurutzegangaz estalita daude era gotikora -ganga horiek izartsuak dira lehenengo tartean, eta sinpleak gainerakoetan-. Ganga horiek harresietan eta joniar ordenako zortzi zutabe klasiko gorretan zurkaiztuak dira. Haiek Bizkaiko ederrenetakoak dira, ederrenak ez esatearren.

Fatxada noblea Iparraldera orientatuta dago, eta alde horretako horma-bularrak lotzen dituzten arku gogor-gogorrez modulatuak. Ardatza finkatzen dute, goian, 1775eko hiru gorputzeko kanpai-horma barroko handiak eta, behean, mainelak berezitateko bi sarrera-arku beheratutako portadak.

Hori guztia bozina arkibolten eta janben egitura klasikoan sartuta dago. Egitura hori santuen irudi tailatuek joriturik dago. Tinpanoa hutsik ageri da baina eraikinaren biografiarako testu interesgarria du: *Myll et ccc et IXL años Sanch I o de enparan*. Aipu horren arabera, 1449an obrako arduraduna Santxo Enparan


Tenpluaren barrualdean honakook nabarmentzen dira: gela estaliaren eta zutabeen handitasun-sentsazioa, hiru nabeak ukitzen dituen oinetako korua eta goiera handiko buruaren hiru inguruneotako harresietako pasabide hustua.

### Altzariak

Egun elizak ez du altzari garrantzitsurik. Rococoko estiloko zenbait irudi daude, haren azken erretauletakoa batetik berreskuratuak. Lehenengo kaperan apaindu gabeko barroko erretaula dago, Joan Azkunaga Foruko maisuaren lan interesgarria.

Sakristian Pasioko eszenadun mihise barrokoen bilduma ikus daiteke, Ildefonso Bustrinek XVIII. mendearen erdialdean egindako lana. Artista hori Bizkaiko tradizio piktorikoa bizirik eta maila duinean mantentzen zuen artista bakanetakoa zen.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### Andre Maria eliza

Gernika - Lumo. (*Goienkale, 1. Batzar Etxearen ondoan dago, Gernikako hiri-aldearen barruan*).

### Bisiten ordutegia:

Bisitak gurtzapen-ordutegian egiten dira. Ez dago oztoporik bisitari taldeentzat giltzak emateko.

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Gernika - Lumo*)

- Santa Klara eliza eta komentua.
- Batzar Etxea.
- Lumoko jauregia.
- Astra-Unceta y Cía fabrika.
- Herrien Europa Parkea.
- Alegria jauregia.

